

## Bizitza sentimenduez beterik

Bizitza sentimenduez beterik,  
beldurra ematen du heriotzak,  
heriotzak mundua tristetzen du,  
eta mundua tristetzen bada,  
bizia itzaltzen da.

Bizitza sentimenduez beterik,  
ez dakit hor goran zer dagoen,  
bigarren bizitza edo zer,  
maite ditudan pertsonekin  
egoteko bigarren aukera.

Bizitza sentimenduez beterik,  
berdin zait ez badago,  
bihotzean ditut denak gogoan  
momentu onak eta txarrak,  
denak gogoan.

Bizitza sentimenduez beterik,  
sufritzen ikasten da,  
maitatzen ere,  
bizitza ikasteko da,  
ikasi gabe ez gara inor.

Bizitza sentimenduez beterik,  
bakoitza den bezala da,  
maitatzen ikasi behar da,  
gu ala gara,  
ezin dugu aldatu,  
errespetatu egin behar da.